



Jendetza bildu zen Bergarako kaleetan eta ibilbideak zeharkatutako guneetan, herenegun, Argi dugu lelopean eginiko Kilometroak jaian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Kilometroetan jai «bikaina» ospatu dute milaka euskaltzalek Bergaran

Eguraldi onak lagunduta, jendetza batu da ikastolen alde, eta antolatzaileek oso balorazio baikorra egin dute

AINHOA SARASOLA

Milaka eta milaka euskaltzaleren bilgune izan zen herenegun Bergara. Aranzadi Ikastolak antolatuta, Gipuzkoako Ikastolen aldeko Kilometroak jaia arrakastatsua izan da aurten ere. Antolatzaileek balorazio «oso positiboa» egin dute, eta eskerrak eman dizkiete Bergarara bildutako milaka herritarrei.

Adin guztietako jendea batu zen Bergaran herenegun, eguraldi ona lagun. «Bikain atera da dena: parte-hartzea, ekitaldiak, jendearen jarrera, antolaketa... Oso-oso pozik gaude», adierazi zuten atzo antolatzaileek, ohar batean. Azaldu zuten, antolaketan ez zen «aparteko arazorik» izan, eta guztia «espero moduan» atera izana festaren arrakastaren «seinalerik onena» dela iritzi zioten.

Zirkulazio aldetik aparteko arazorik ez zen izan; autoz bertaratu-takoentzat prestatutako aparkaleku ia guztiak bete ziren. Autobusekin «gorabehera txiki-riren bat» bai izan zen goizean goiz; Arrasate, Sorluze eta Zumarraga aldetik zetozenekin, batez ere. Denbora tarte txikian jende asko hurbildu zen, eta beteta zihuan autobusa ez zen zenbait lekutan gelditzen. Zain zegoen jendea pilatu zen zenbaitetan. Pesa garraio enpresak autobus zerbitzua are



Familia bereko hiru belaunaldik parte hartu zuten hasiera ekitaldian zinta mozten. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

gehiago indartu zuen orduan, eta gorabeherak konpontzea lortu zuten. Gainerakoan, arratsaldean ez zen arazorik izan ez herriko sarreretan ez irteeretan.

Ekitaldiei dagokienez, guztiak espero zen orduetan egin zirela azaldu zuten antolatzaileek. Anje Duhalderen emanaldiak, Pantxoia eta Peioarenak, Kautarenak, Txan Magoarenak eta Betizuenak «ikusmin handia» sortu zutela adierazi zuten, eta gainerako guztietan ere jende asko batu zela gehitu. Gune guztiek izandako harrera azpimarratu zuten, Labegarrietakoak eta Artabilakoak bereziki.

Ibilbideari dagokionez, berriz, jende askok oso ondo antolatua zegoela adierazi diela esan zuten; zerbitzuguneak ondo kokatuta zeude-



Bergarako haurrak izan ziren eguneko protagonistak atzoko festan. A. CANELLADA / ARP

Irurako ikastolak hartu du datorren urtean jaia antolatzeko lekukoa

Bergarako Aranzadi ikastolaren eskutik Irurako Ikastolak hartu zuen atzo datorren urteko Kilometroak jaia antolatzeko lekukoa. Tolosaldeko herrian egingo da, beraz, Gipuzkoako ikastolen aldeko hurrengo festa, 2008ko urriaren 5ean.

Irurako ikastetxe bakarra da ikastola, eta dagoeneko 30 urteko ibilbidea egina badu ere, oraintxe hasi berriak dira Irurako Ikastola eraikitzen Lehen Hezkuntzarako. Gerora begira, Haur Hezkuntza eta jangelarako eranskina eginez eman nahi diote jarraipena egitasmoari. Izan ere, Iruran urte gutxitan 600 herritar izatetik 1.300-1.400 biztanle inguru izatera pasatu dira, eta beharrak ere neurri berean hazi dira. Hori dela eta, ikastola egitea eronka bilakatu zaie irurarrei.

Bailararen inplikazioa derrigorrezko jo dute Irurako Ikastolakoek asmoa gauzatzeko. Hargatik, gaurtik elkarlana sendotzen ahaleginduko direla adierazi dute.

la, eta ibilbidea lau eta eroso zela adierazi diete antolatzaileei.

Edalontzi berrerabilgarriekin izaniko arrakasta nabarmendu zuten ere: 150.000 edalontzi banatu ziren, eta horrek zabor gutxiago sortzen eta herria garbi mantentzen lagundu duela iritzi zioten. Atzo goizera-ko Bergarako kaleak txukun zeuden, ekimen horri eta boluntarioek eginiko lanari esker.

«Jende uholdearen jarrera» txalotu zuten ere, antolaketa lanetan ari zirenen oharrei kasu egin zieten nabarmenduta. Eta egun osoan lanean jardun zuten 1.500 boluntarioekin esker ona agertu zuten.

Egunak emandakoaren balantze ekonomikorik oraindik egin ez badute ere, jaiaren arrakastak baikor izatera bultzatzen dituela uste dute antolatzaileek. Bildutako dirua Errege Seminarioan egindako hainbat berrikuntza lan finantzatzeko eta eginkizun dituzten berrikuntzetarako baliatuko dute.

EKITALDI «HUNKIGARRIA». Kilometroak jaiari ekitaldi «hunkigarri, polit eta xumea» eman zioten hasiera. Arduradun politikoei eta ikastolakoek hitza hartu ostean, Aranzadi ikastolari lotutako hainbat lagunek, haur nahiz helduek zinta dantza berezia eskaini zuten. Egunari hasiera emateko zinta mozketan, sendi bereko hiru belaunalditako kideek –amonak, amak eta semeak– parte hartu zuten.

Eguerdian, berriz, omenaldi ekitaldia egin zen. Aranzadi Ikastolako gurusoak omendu zituzten lehenik: izandakoak, direnak eta izango direnak. Halaber, Patxi Azkargorta bergararrari omenaldi berezia egin zioten. Bergaran ikastolan ibili zen Azkargorta, 1936ko gerra aurretik eta, gerora, ikastolen alde bizi osoan aritu dela nabarmendu zuten. Omenaldien ostean, Irurako Ikastolari pasa zion Aranzadik Kilometroak jaiaren lekukoa.